

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MELLEDESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea 2026ko lehenengo sei-hilekoko ordainagiriak

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren 2026ko lehenengo sei-hilekoko tasa ordaindu behar dutenen errolda egin da, baita 2026ko uztailaren 31n onetsi ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarrereko errejidore-lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2026ko irailaren 7an hasi eta azaroaren 6an bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2026ko urriaren 7an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak kudeatuko du zordunketa zuzenean ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo da.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Melledes, 2026ko uztailaren 31

Errejidore-lehendakaria

ENRIQUE JIMENEZ GABARRI